

KOSTUEN EGITURA

Gure negozioa aurrera ateratzeko bere baitan dakartzan kostu guztiak **kostuen egitura** deritzogu.

Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik. Gure kasuan, gure interesa ez da kostuak minimizatzea, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea, gure produktuaren kalitatea eta marka zainduz.



Gure enpresaren kostuen egiturak honelako ezaugarriak izango ditu:

Kostu Finkoak: Berdin mantentzen diren kostuak dira. Adibidez, gure lantegiko alokairua finkoa izango da, gehiago zein gutxiago ekoiztu beti berdina ordaindu beharko dugu. Hasieran, lauron artean alokatutako lokal batean egingo dugu lan. Langileen soldata ere, kostu finkoa izango litzake. Behin gure enpresan aritzen diren langileei soldata ezarri, hori izango da haien soldata, nahiz eta gure enpresa gehiago edo gutxiago saldu. Produktuak egiteko beharko diren makinaren mantenimendua ere kostu finkoen beste adibide bat da.

Kostu Aldakorrak: Kasu honetan, gure kostu aldakorrak APC-k erabiliko duen materialak izango dira. Gure produktuarentzat (kaskoak) GPS-ak, kargadoreak... etab erabili beharko dira. Adibidez, kargadoreen kasuan, zenbat eta kasko gehiago saldu orduan eta kargadore gehiago beharko ditugu. Beraz, kostu honek salmenta-bolumenaren arabekoak izango dira.



Eskala ekonomiak: Gure produktuaren ekoizpena asko handitzen bada, deskontuak egin beharko ditugu, gure bezeroek oso ondo onartuko zuten eta salmenta handitu egingo zen ere.